

Historiaurrearen, Antzinaroaren eta Erdi Aroaren historia euskaraz. Historia ala fikzioa?

(Prehistory and Antique and Medieval History in Basque Language: History or Fiction?)

Agirre García, Jaione

UPV/EHU. Filologia, Geografia eta Historia Fak. Erdi Aroaren, Aro Berriaren eta Amerikaren Historia Saila. Unibertsitateen Pasealekua, 5. 01006 Gasteiz

BIBLID [1136-6834 (2005), 34; 185-208]

Jaso: 04.01.26
Onartu: 04.03.02

Euskaraz idatzi den Historiaurrearen, Antzinaroaren eta Erdi Aroaren historiari eta historiografiari errebaso labur bat egitea da artikulu honen helburua. Aldi berean, euskaraz arlo hauetan idazteak eta lana egiteak dituen arazo eta zailtasunei buruz, egileak bere gogoetak azaldu ditu laburki.

Giltza-Hitzak: Historiografia. Euskara. Erdi Aroa. Antzinatea. Historiaurrea.

El objeto del presente artículo es efectuar un breve repaso de la historia e historiografía de la Prehistoria, Antigüedad y Edad Media producidas en euskara. Igualmente, la autora expone brevemente sus reflexiones sobre los problemas y dificultades que supone escribir y trabajar en euskara sobre estos temas.

Palabras Clave: Historiografía. Euskara. Edad Media. Antigüedad. Prehistoria.

Le but de cet article est d'effectuer une brève révision de l'histoire et de l'historiographie de la Préhistoire, de l'Antiquité et du Moyen Age produites en euskara. De même, l'auteur expose brièvement ses réflexions sur les problèmes et les difficultés que suppose écrire et travailler en euskara sur ces thèmes.

Mots Clés: Historiographie. Euskara. Moyen Age. Antiquité. Préhistoire.

“Hori da apaltasun zientifikoa. Edonork irakats liezaguke zerbait. [...] Ikertu nahi bada, ez da inolako iturririk mesprezatu behar, eta hau printzipio gisa hartu behar da.”

Umberto ECO, *Como se hace una tesis*¹.

1. SARRERA

Gai honi buruz hitz egiteko eskatu zidatenean, burutazio desberdinak etorri zitzaizkidan. Esan behar dut, nik baino esperientzia gehiago duenik badela euskal mediebalismoan; bide batez, Erdi Aroan espezialista izanik, gutxi asko esan dezakedala Antzinaroaz eta aurreko garaiez, historialari gisa dudan esperientzia agertzea baino (ni baino egokiagoak badira eta, gainera, gai hauetan arituak, Koldo Larrañaga, kasu). Hala ere, nire gogoetak idatziko ditut lan honetan eta barka biezadate adituek, nire alorretik kanpora geratzen diren kontuetan nahi bezain zehatza ez banaiz.

Nire asmoa izango da, alde batetik, laburki aztertzea euskaraz azken hogeitaz urteotan zer lan egin diren Erdi Aroko Historian orokorrean, nire espezialitateko gaia baita, eta aurreko garaietara hurbilpen bat egitea ezagutzen dudanaren aldetik (Euskal Herria ikergaitzat dutela, nahiz ez dutela). Eta, bestalde, aztertzea lan horiek utzi dituzten hutsuneak, eta gure lana euskaraz egiteak sortzen dituen gabeziak. Azken batean, euskaraz lan egiten dugun historialariok gure egunerokotasunean ditugun arazoetaz aritzea, alegia.

Gainbegiratu nahi ditudan aspektuak historiografikoak, hezkuntzari lotuak eta ikerketaren ingurukoak dira, neure esperientzian eta beharretan oinarrituak. Beraz, eta, berriz diot, gaiari buruz neure gogoetak dira eta ez zerrenda sistematiko bat dauden lanei buruzkoa. Izenburuan jarri dudan aipua, UEU argitaratutako liburu baten izenburuaren parafasia da, euskarazko historiografia benetan existitzen den arren, oraindik oso gaztea delako eta batzuetan denik ere ez dirudielako.

Honela, historiografiaren beharra azpimarratuz hasiko dut nire lana, beti esan ohi denez, baina Jurgi Kintanak, euskarazko historiografiaz egindako artikulua biziki interesgarrian egiten duen moduan², Pruden Gartzia eta Iban Zalduaren hitz batzuk aipatu nahi nituzke, historiografia aspergarria dela diotenen kontra esandakoak: *“Historiografia, ordea, oso interesgarria izan daiteke, ez bakarrik gure ezaguera-arlo honen gora beherez jabetzeko, baizik eta historia bera, garai edo gizarte konkretu bat ezagutzeko”* [sic.]³.

1. Artikulu honen egileak itzulia gaztelaniatik; ECO, Umberto. “La humildad científica”, *Como se hace una tesis*, Bartzelona: Gedisa, 1982; 174. or. eta hurrengoak.

2. KINTANA GOIRIENA, Jurgi. “Euskarazko historiografia (I): aurrekariak eta lehen pausoak (XVI-XIX mendeak)”. In: *Kondaira.com*, 2003, 0. zenb.; 1-38. orr. (<http://www.kondaira.com/>).

3. GARZIA, Pruden eta ZALDUA, Iban. *Historia: zientzia ala literatura*, Bilbo: UEU, 1995; 7. or.

2. HISTORIOGRAFIAREN AZKEN BIZPAHIRU HAMARKADAK: HAZKUNDEA, BAINA ORAINDIK MOTZ

Historiografia aztertzen dugunean, kantitatez oso mugatua dela ikusten da Euskal Herrian produzitzen dena, orotara, Erdi Aroko historiaz ari bagara, historialari talde txikia dagoelako eta EHUKo fakultatea (euskaraz historia irakasten den unibertsitate jendetsuena) “berria” delako, besteak beste; euskaraz produzitzen denari begiratzen badiogu, zer esanik ez. Antzera gertatzen da Antzinaroaz edo Historiaurreaz bagabiltza.

Tradizioari begiratu besterik ez dugu, liburuak euskaraz XVI. mendean idazten hasi baldin baziren, historiari buruzkoak aurkitzeko XIX. mendera itxaron behar dugu (aurreko saiakerak saiakera)⁴. Manex Goihenetxek horrela jasotzen du grafiko batean era oso argian⁵. Ondoren, bada liburu paradigmatico bat lotura egin zuena mendearen hasieraren eta azken bi hamarkadekin: On Joxe Migel Barandiaranek gaztelaniaz idatzi eta gero berak euskarara itzultako *Euskalerrri'ko leen-gizona (eusko-lurretan lenengo izan ziran gizonen edesti laburra)*, Donostia, Beñat idaztiak, 1934 liburua. Frankismoaren garaian frustratu zen lehen saiakera da (gerrak moztu zuen aukera galdua), eta horregatik aipagarri zaiguna itzulpena izan arren, egilearena berarena baita⁶ (gipuzkerara, hori bai, garai hartan bultzatzen zen “euskara batua”⁷), eta eskuliburu gisakoa.

Baina, dagoenarekin, historiografia bat badela justifikatu beharrik ez daukagu, are gehiago, J. Kintanak jasotzen duen definizioaren arabera zera baitiosku:

Zentzu honetan euskarazko historiografia egon badagoela baieztatu dezakegu, zenbait historialarik (gutxi asko) beren liburuak eta artikulak euskaraz argitaratzen baitituzte⁸.

Baina, eta egile berarekin jarraitzen dut:

[...] halabeharrez hizkuntza berean idatzita dauden lan sakabanatu eta zerikusit gabeak izan litezke, eta kasu horretan, zergatik kontsideratu multzo eta ikergai? [...] Jadanik aurreratzen dugu, “euskarazko historiografia” gaiak ez duela berez barne-izate sendoegirik [...] guk boluntarioki sorturiko konbentzio bat da⁹.

4. KINTANA GOIRIENA, Jurgi. “Euskarazko historiografia (I)...”, *op. cit.*

5. GOIHENTCHE, Jean. *Les basques et leur histoire. Mythes et réalités*, Donostia-Baiona: Elkar, 1993; 258. orr.XII. grafikoa (iruzkina 45. orrialdean)

6. Pentsa daiteke tarteko frankismo garaia izan ez bazen, jarraipena izango zuela, baina hori ez dugu inoiz jakingo.

7. Eta gaur egungo egile batzuk jarraitua den konbentzioa ikusiko dugunez.

8. KINTANA GOIRIENA, Jurgi. “Euskarazko historiografia (I)...”, *op. cit.*, 2. or.

9. KINTANA GOIRIENA, Jurgi. “Euskarazko historiografia (I)...”, *op. cit.*, 2-3. orr.

Eta, egia da, egin daiteke gai hautatu gisa, baina niri sortzen zaidan zalantza da zergatik tratatu behar den aparte, alegia, beste historiografiatik kanpo.

Beste ikuspegi batetik ere egin daiteke gogoeta, alegia, euskaraz, oro har, produzitzen dena oso mugatua da, eta, jakina, horren barruan dago Historiaurreari, Antzinaroari eta Erdi Aroari buruz produzitzen dena; beraz, hori ere, kantitatez, ezin da asko izan¹⁰. Pentsa genezake, gai orokorrak edo Euskal Herriaz kanpokoak aztertzean gertatzen dela hori guztiori bakarrik, baina, Euskal Herriari buruzko gaiez ari bagara ere, berdin gertatzen da.

Egia da, halere, azken urte hauetan lanak ugaltzen hasi direla.

Azken hamarkadetan, Historiaurrearen, Antzinaroaren eta Erdi Aroaren historiari buruz sortzen diren azterlanak ugaltu egin dira Euskal Herrian, Europa osoan bezala. Eta Euskal Herriko Historiaurrearen, Antzinaroaren eta Erdi Aroaren historiak ari direnak ere bai. Oraindik, hutsune asko daude historiografia oso zaharkituak baino betetzen ez dituenak, kasu batzuetan; besteetan, hori ere ez duten gaiak ugariak dira.

Ikertzeko metodologia berriak jarraiki, tokian tokiko historia lantzen da, batez ere. Ikasle batek behin galdetu edo esan zidan moduan, beharbada, hori gertatzen da, historialariok besterik egiteko gaitasun falta daukagulako edo gaitasun falta dugula uste dugulako, edo, agian, geure joera justifikatuz, lan monografiko zehatzetatik hasi behar delako sintesi lan handiagoak egin ahal izateko. Baina, azken kasu honetan ere, gure historiografiaren egoeraren ispilua ere bada: hau da, hemen egiten den historiografia "hasiberria" da. Ni ez naiz horretaz gehiago arituko, baina gera bedi hor zalantza, gogoeta egin nahi duenarentzat.

Ez bakarrik lanak, ugaritzen ari dira, baita ere, lan horien inguruko azterketak eta bildumatze eta sistematizatze beharrak ere (1990eko hamarkadaren garrantzia azpimarratu behar dugu, aurrez egindako lanen oinarririk gabe ezinezkoa izango zen arren abiada hartze hori).

Baina, ez gaitetzen nahas; orain arte Euskal Herrian sortzen den Historiaurrearen, Antzinaroaren eta Erdi Aroaren historia ikerketez ari nintzen orokorrean, eta ez euskaraz egindako eta Euskal Herrian sortzen diren Historiaurrearen, Antzinaroaren eta Erdi Aroaren historiari buruzko ikerketez. Euskaraz zer egiten den begiratzen badugu, garaiarekin doan hazkundera badagoela ikusten da, baina produkzioa are urriagoa dela ikusten dugu. Hots, Erdi Aroaz, Antzinaroaz edo Historiaurreaz egiten den historia lanen zati oso txiki bat baino ez da euskaraz egiten gure artean, historialari euskaldunon artean, alegia¹¹. Horiexek azter ditzagun lehenbizi eta behin.

10. Are gehiago, badirudi, Historia Garaikidea dela nagusi.

11. Joerak berdintsuak dira, dena den. Horregatik aurrez esandakoarekin bat datoz askotan. Horrela, bibliografian jaso ditudan 44 liburutatik 37 dira 1990az geroztik argitaratuak; artikuluetatik Historiaurreko 28tik 17 dira 1990az geroztik argitaratuak; Antzinarokoetatik 9tik 1990a baino lehenagokoak 3 dira eta Erdi Arokoetan 32tik 5 bakarrik.

UEUK euskal komunitate zientifikoaz egiten ari den INGUMA datu-basea hartzen badugu datuen jatorri gisa eta diagnosi bat egiteko iturri gisa¹², berak orain arte bilduta eskaintzen diguna lagin moduan hartuz, zera ikus genezake (historia eta historiaurrea bereiztea uzten du bakarrik, beraz, ez dugu ahaztu behar Aro Berriko eta Aro Garaikideko lanak eta egileak ere sar-tzen direla taula honetan):

	HISTORIA	HISTORIAURREA
EGILEAK	764	39
LIBURUAK	160	2
ARTIKULUAK	788	19
ITZULPENAK	17	0
HITZAURRE, AIPAMEN ETA LIBURU ARTIKULUAK	225	10
IKASTAROAK	64	3
HITZALDIAK	507	21
IRAKASGAIK	134	5
IKERKETA PROIEKTUAK	0	0
DOKTOREGO TESIAK	11	0

Produktzio historiografiko euskaldunaren datu orokorrak eta Historiaurrea banaka har-tuta Inguma datu-basean 2003ko azaroan ziren datuen arabera.

Panorama orokorrak zenbaki handiak ematen ditu, beraz, oso optimista dirudi; baina historiaurrearen datuak ikusita, errealitatetik hurbilago geratzen gara. Arlo bakoitzeko datuak aztertzean, izan ere, hori gertatzen da: kantita-teak asko murrizten dira. Honela, J. L. Orella Unzue-k egindako Erdi Aroari buruzko 1982 eta 1992 urteen arteko bibliografia bilketan, 1500 *item* histo-riografiko bildu zituen, eta horietatik 35 ziren bakarrik euskaraz¹³.

Bibliografian jarri dudak zerrendan bildu ditut azken urteotan euskaraz Historiaurreari, Antzinaroari eta Erdi Aroari buruz egin diren lan batzuk, aipa-garrienak iruditu zaizkidanak (ahalik eta gehienak, artekoak barne; kontuan izanda dagoen sakabanaketa)¹⁴.

12. Kontuan hartu behar da, INGUMA datu-basea etengabe osatzen ari den datu-basea dela, ondorioz, 2003ko azaroan sartua zegoenaren arabera egindako diagno-sia da nik jasotakoa, bada, ez ditu jasotzen egindako lan guztiak eta, orotara, datu-basearen momentuko argazkia ematen du, fosildua, alegia. Aurrerago sartzen doazen datuak kontsultatu nahi badira, ikus <http://www.inguma.org/>.

13. ORELLA UNZUE, José Luis. "Bibliografía medieval del pueblo vasco 1982-1992". In: *RIEV*, 41. urtea, XXXVIII. liburukia, 1. zenb.; 225-300. orr. Hala ere, Ingu-man eta EHUko Euskara Zerbitzuan erreferentzia gehiago bildu ziren garai horretarako.

14. Zerrenda honetan ez dago egin den guztia, eta, beharbada, irakurleak beste batzuk ezagutuko ditu, nik sartu ez ditudanak. Bitez haiek ere kontuan hartuak, lan hau hasi dudak aipua gogoan. Ohar gisa, itzulpenak ez sartzen saiatu naiz, horrela zirela jakin ahal izan dudanean.

Haien azterketa laburki eginez gero, ondorio hauek lor genitzake: orotara 1980ko eta 1990eko hamarkaden artean (2003a arte) 44 liburu jaso ditut; liburuetan 27 dira Erdi Aroari buruzkoak, Historiaurreaz hiru (proportzionalki artikulua gehiago daude Historiaurreaz liburuak baino), Antzinaroaz sei eta gero Antzinaroa eta Erdi Aroa biltzen dutenak lau eta hiru aroak hartzen dituzten beste lau. Bildutako 69 artikuluetatik Historiaurreaz 28 dira, Antzinaroaz 9 eta Erdi Aroaz 32. Beraz, Antzinaroa da, printzipioz, artikulua gutxien dituen. Beraz, liburu gutxien Historiaurreaz daude eta artikulua gutxien Antzinaroaz. Artikulutan Historiaurrea eta Erdi Aroa paretsuan daude (nahiz eta liburutan Erdi Aroa nagusi den).

Egileak begiratzen baditugu, 44 liburuak 44 egilek idatziak dira –egile multiplea denean denak kontatuta, “Askoren Artean (AA.AA)” kasuan izan ezik–, baina zazpi errepikatzen dute (Agustín Azkarate, Koldo Larrañaga, Belen Bengoetxea, Joseba Intxausti, Mertxe Moreno, Mari Jose Aranburu eta Bixente Latiegi). Artikuluetan, Historiaurrean 28 artikulua 23 egilek (multipleak ere banaka kontatuta) eta horietatik errepikatzen dute (J.A. Mujika, Frantzisko Ondarra, Xabier Larrañaga, Xabier Peñalver, Alvaro Arrizabalaga, Juan San Martin, Mari Jose Iharritu, Xabier Gorrotxategi eta Agustín Azkarate); Antzinaroan 8 egile dira 9 artikulutarako (Koldo Larrañagak errepikatzen du). Erdi Aroan, 32 artikuluek 32 egile dituzte (errepikatzen dutenak: Juan San Martin, Jose Angel Lema, Roldán Jimeno, Joseba Intxausti, Agustín Azkarate eta Jaione Agirre). Baina, artikulua eta liburuetan ere izen berdintsuak ikus daitezke kasu batzuetan. Beraz, arlo bakoitzean ez da 30 zenbakia ia gainditzen eta Antzinaroan nabariagoa da hau. Balorazioa, jakina, erlatiboa da, lan eta egile gutxi dira, baina norbaitek pentsa lezake asko direla (espe-ro baino gehiago, alegia) eta kantitateak era positiboan baloratu beharko genituzkeela.

Egileen “jatorri akademikoari” begiratzen badiogu, ikus dezakegu bi multzo nagusi direla: unibertsitatearen mundukoak (ikasle eta irakasleak, erdaz egiten den historiografiaren korrante bertsuak jarraituko dituztenak, ikerketa lanak direnean) eta bestelakoak (hauen artean denetarik dago: elizgizon apaiz eta erlijiosoak –oso eruditua, ez dago Julen Urkizaren edo Pello Joxe Aranbururen lana ikusi besterik– eta profesio liberaletako euskaltzaleak Juan San Martin edo Joseba Intxausti modukoak, klasifikaezinak direnak egindako lan ugariagatik). Azpimarratu behar da unibertsitatekanpora dagoen zirkuitua ezagutzea oso zaila dela, hainbat aldizkari eta argitalpen txikitan sakabanatutako artikulua eta lanak izaten direlako, eta horretan lan asko dugu begiratzen oraindik¹⁵. Gainera, eta berriz ere unibertsitateko zirkulutik kanpokoez ari naiz, lan horietako asko ez dira euskara batuan idazten, izenburuek haiek bakarrik adierazten diguten moduan¹⁶.

15. Horren adibide dira: *Beasaingo paperak*, *Karmel*, Durangoko Arte eta Historia Museoaren lana, Gerediagarena, garai batean Kapirixo elkartearen inguruan sortutakoa, ezagunagoa den Aranzadi Zientzia Elkartearen lana eta beste hainbatena.

16. Hor daude *Euskerazaintzaren* inguruko egileak, Euskaltzaindiarekin batere ados ez direnak.

Landu diren arloak, batik bat, ikerketa eta pedagogia materialak eta sintesi lanak dira, baina ikerketa lanak gero eta ugariago agertzen dira. Eta gaietan: Historiaurrean, terminologia, aztarnategi zehatzen indusketak, paleopatologia, erlijiotasuna (batez ere, hilobiratze monumentuak edo megalitoak), aroei buruz egindako sintesiak, elikadura etab.; Antzinaroan erromatar garai-ko aspektu desberdinak eta Elizaren historia; eta Erdi Aroan, artearen historia, Elizaren historia, tokian tokiko historia (herri eta hiribilduak edo haien aspekturen bat), garai zehatz baten sintesia eta Santiago Bidea. Lan asko dago, beraz, egiteko benetan, eta ez diogu topikoa jarraitzeagatik, errealitate latza baita.

Hasi dira agertzen historiografiari buruzko lanak euskaraz ere, batzuk gai edo garai zehatz bati buruzko bibliografia bildumak direnak¹⁷ –oso baliagarriak direnak lana egiteko, ez dezagun uste–; baina, baita ere, historiografiari buruzko hausnarketak (metodologia orokorraz¹⁸ eta baita garai baten historiografiak egin diren lanez ere¹⁹).

17. Gaztelaniazkoak ere sartu ditugu hemen: Arteko bibliografia bildumak Eusko Ikaskuntzak bultzatuak (guri dagokigun garaiak: AA. AA. *Erdi Aroko Artearen berrikusketak Euskal Herrian*, Donostia: Eusko ikaskuntza, 1996) edo, gorago aipatu den ORELLA-rena. Jakina lan hauek ez dituzte euskaraz idatzitako lanak bakarrik jasotzen, garai edota gai bati buruzko ahalik eta lan gehienak baizik, eta, ahal dela, hizkuntza denetan (euskara beti sartzen ez den arren erdaldun diren historialariek egindako bilketetan); eta konturatzen bagara, normalean Euskal Herrian egiten diren bilketak Euskal Herriko historiari buruz egindako dira (gaia edo garai edozein dela).

18. Joera historiografiko berriez: RIAÑO PÉREZ, Eugenio. “Historia Berria: Berrikuntzak eta Berriketak”. In: GARZIA, Pruden eta ZALDUA, Iban. *Historia: Zientzia ala literatura: Historiari buruzko gogoeta sorta*, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 1995; 31-45. orr.), bere arloan bakarria dena ia euskaraz; historiografiak orokorrean: AGIRREAZKUENAGA, Joseba. “Historian barrena: historiografiaren arazoak”. In: KINTANA, Jurgi eta ARTETXE, Karmele (arg.). *Ikerketa berriak Euskal Herriko historian: metodologia aitzindariak eta berrikuntza historiografikoak*, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 2002; 155-168. orr.; AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, Joseba. “Euskal historiografiaren barrena: gizarte arazoaren kezka eta azterketa XX mendeko tokiko historiografian”. In: *Cuadernos de Sección de Historia-Geografía*, 19. zenb., 1992, 11-31. orr.; AGIRREAZKUENAGA, Joseba. “La tradición historiográfica vasca: su desarrollo en el marco de las ciencias sociales”. In: *Historia Contemporánea*, 7. zenb., 1992; 257-281. orr. (1970 arte). GARCÍA de CORTÁZAR, Fernando eta MONTERO, Manu. “Historiografía”. In: *Diccionario de Historia del País Vasco*, Donostia, 1983, 1. liburukia; 402-444. orr. Euskaraz idatzi den historiak (klasikoez batez ere): aipatutako KINTANA GOIRIENA, Jurgi. “Euskarazko historiografia (I)...”, *op. cit* eta LÓPEZ ATXURRA, Rafael. “Euskal historiaren historiografiak”. In: *Jakin*, 55. zenb.; 9-38. orr.; Euskal Herria subjektu historiografiko gisa aztertuz, LARRAÑAGA ELORZA, Koldo. “W. von Humboldt y el proceso de definición de Euskal Herria como sujeto del discurso historiográfico”. In: *RIEV*, 41.2. zenb., 1996; 477-510. orr.

19. Historiaurreaz, MUJICA, J.A. “Euskal Historiaurrearen Historiografia”. In: AZKARATE GARAI-OLAUN, Agustín (arg.). *Euskal Herriaren historiak II: Historiaurrea*, Bilbo: EHU, 1985; 17-39. orr.; urte batzuk dituen dagoeneko, eta MUJICA ALUSTIZA, Joxean. “Euskal Arkeologiaren lanak. Historia eta azken hamarkada”. In: *Jakin*, 54.

...

Bibliografia bilketa eta datu baseak egiteko interesa ere agertu da. Euskaraz egin den produkzioa biltzen dutenetan, hor dago INGUMA proiektua, Udako Euskal Unibertsitatean (UEUn) Pruden Gartziairen zuzendaritzapean egiten ari dena, Nora Igartuak hasia eta gaur egunean Karmele Artetxe Sánchez gauzatzen ari dena. Datu-base horrek euskaraz egin den edozein motako ikerkuntza jasotzen du (artikuluetatik, hitzaldietaraino), eta, jakina, jakintza arlo guztietan. EHUK ere euskaraz egindako lan bibliografikoak biltzeko datu-base baterako proiektua sortu zuen iaz²⁰. Eusko Ikaskuntza ere ari da Euskal Herrian egiten den historiako lanari buruzko bibliografia biltzen²¹, garai batean Jon Bilbaok egindako ahaleginaren bidetik²², ez zena euskarazko produkzioari buruz egindakoa bereziki, baizik eta Euskal Herriko Historiari lanak biltzeko ahalegin entziklopedikoa.

Lanak aztertzeaz gain, irakurleak, erabiltzaileak eta egileak ere aztertu behar dira. Ikerketa nahiz bilketa lanak egiten dituzten egileek ere kontuan hartzen ote duten euskaraz produzitzen den “apurra”, galdetu beharko genioke geure buruari. Zoritzarrez, erantzuna sinplea da: euskaraz dakitenek bai (ia beti, bederen), baina ez dakitenek ez, eta ez da bakarrik hizkuntza menpe-

...

zenb., 1989, 197-211. orr. Erdi Aroz: LEMA, José Angel. “Euskal mediebalismoaren zenbait alderdi: lorpenak eta hutsuneak” in KINTANA, J. eta ARTETXE, K. (arg.), *Ikerketa berriak Euskal Herriko historian: metodologia aitzindariak eta berrikuntza historiografikoak*, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 2002; 75-91. orr., sintetikoki lanik eta azterketa korronterik esanguratsuenak ez ezik, ia denak biltzen dituen eta, gainera, era oso sintetiko eta egokian; are gehiago egin denaren balorazioak eginez eta falta daitekeenaren hutsuneak azpimarratuz kasu askotan (esan dezagun bertan bi euskal liburu baino ez direla aipatzen, eta biak elizaren historiari lotuak esanguratsuki Julen Urkizarena eta Fermin Artolarena –ikus bibliografia–). Erdi Aroari buruz, orokorrean egin den, mota horretako hausnarketa bakarra agian, eta euskaraz egindako bakarra dudarik gabe. Edo gai zehatzago batez: ARTETXE SÁNCHEZ, Karmele, “Egungo eusko-berismoari buruzko zenbait ohar”, *EuskoNews & Media*, 54. zenb., 1999/11/12-19, “Gaiak” atalean: <http://www.euskoNews.com/0054zBK/gaia5403eu.html>.

20. Euskara Zerbitzuak eskuzabalki kontsultatzen utzi didana. Bertan, euskaraz idatzitako edozein gaitako erreferentziak biltzen dira, ez bakarrik historiakoak, orotara ia lau mila fitxa dira eta horietatik 573 dira historiakoak (historia orokorki hartuta, itzulpena eta dibulgazioa barne).

21. Proiektu honen koordinatzaileak Iñaki Bazán Díaz eta José Luis de la Granja Sáinz dira, eta haiekin bilatzaile lanean, Eliseo Gil Zubillaga, Alberto Angulo Morales, Oscar Álvarez Gila, Santiago de Pablo Contreras eta Carmelo Landa Montenegro ari dira (dagoeneko emaitzarik eman du lanak 1998ko lanak bilduz: BAZÁN, I. eta GRANJA, J. L. de la (koord.) eta PABLO, S. de, Álvarez, O., ANGULO, A., GIL, E. eta LANDA, C. (biltzaileak). “Bibliografia General de Historia de Vasconia (1998) / Euskal Herriko Historiaren Bibliografia Orokorra (1998)”. In: *Vasconia*, 31. zenb.; 347-456).

22. Lan hau ere jarraitua izaten saiatu zen eta, berriki, Bizkaiko Foru Bibliotekak internet bidez kontsultatzeko moduan jarri du Jon BILBAOren Eusko Bibliographia bera, honako helbide honetan: <http://bibliotecaforal.bizkaia.net:81/screens/mainmenu.html>; gainera, badirudi egitasmo sendoagorik badela horren inguruan, beste berririk lortu ez dudan arren.

ratzen ez dutelako (ikerketa lanetan ez erabiltzea ulergarria litzatekeena, ezin denez aipatu irakurri edo erabili ez den lanik –ez bada horren erreferentzia argia egiten hala agertuz–, baina historiografia bilketetan edo errepertorioetan aitzakiarik ez duena). Kongresu honetan ere, bereizi aztertzen ari gara gaia (hots, euskaraz egindako historiografia) eta ez orokorrean Euskal Herrian egiten den produkzioa –ez dezagun pentsa diskriminazio negatiborik egon denik asmoan, kontrakoa, diskriminazio positiboa izan da, baina horrexek, alegia, horrexen beharra egoteak adierazten digu arazoa presente dagoela²³–.

Hitz egin daiteke, baita ere, Biblioteka nazionalaren kontuez, baina hau ez da horretarako lekua²⁴. Aipa bitez hala eta guztiz ere, Sancho el Sabio, Koldo Mitxelena, Bizkaiko Foru Biblioteka etab. moduko erakundeek edo bibliotekek daukaten bilduma joera²⁵. Sancho el Sabio Fundazioaren helburuak zeintzuk diren, argi dirudi: euskal gaien inguruan egiten den bibliografia ahalik eta gehiena biltzea²⁶, berdintsu Koldo Mitxelena Kulturguneara. Euskaltzaindiaren bibliotekaz –Azkue Bibliotekaz, alegia–, esan daiteke, zehatzagoa dela euskaraz eta euskararen inguruan egiten lanen bilketa egiten dela, baina azkenean Euskal Herriaz egiten dena ere biltzen da.

Beraz, sakabanatuta dauden lanak biltzeko kezka sortzen ari da (gainera, ez erakunde bakarretik, askotatik baizik: UEU, EHU, Eusko Ikaskuntza²⁷... Baina lan hori egin beharrak berak adierazten digu nolakoa den produkzioa: han-hemenka agertzen diren gauzak dira, askotan txikiak eta sakabanatuak eta sarri ia galdu egiten direnak. Goian agertutako taulak eta zerrendak begiratu gero, argi ikus dezakegu, egile gutxi batzuk etengabe errepikatzen direla (edo oso interbentzio puntualak izaten dira, hau da lan bakarreko egileak, errepikatuko ez dutenak). Askotan, gainera, haien lanak artikulua direla liburuak izan ordez, esfortzuari garrantzia kendu gabe, jakina, baina gai oso zehatzei buruzkoak direlarik, normalean. Eta, sarriari sarri, hitzaldi baten emaitza direnak, produkzioa aztertzen bada argi ikusten den moduan (artikulu asko daude

23. Alegia, euskara denok dakigunean eta indartsu denean utziko diogu euskararen aldeko *Kilometroak*, *Ibilaldiak*, *Nafarroa Oinezak*, *Arabian Euskarazak*, *Herri Urratsak* eta *Korrikak* egiteari, emakumearen berdintasuna gauzatzen denean Emakumearen Eguna ospatzeari utziko diogun moduan.

24. Ikus JUANENA, Agurtzane. “Euskal liburutegi nazionalaz”. In: *Jakin*, 105. zenb.; 32-52. orr. eta egile beraren “Euskarak bere agentzia bibliografikoa behar du”. In: *Aldezkaria*, 7. zenb.; 27-28. orr.

25. Beste batzuk ere badira aipagarriak, Euskal Herriko gaietan funts aipagarriak dituzten biblioteka espezializatuen zerrenda erabilgarria sarean dagoena: <http://www.eibar.org/joana-albret/estekak.htm>.

26. Bibliografia bilketa egiten ari dena ere bai; horren adibidea da oraintsu atera duen deialdia: “Jesus Olaizola Bibliografia Beka” euskal bibliografiari buruzko ikerketak egiteko proiektuak eskatuz.

27. Euskaraz egindakoaren inguruan hona hemen adibide soil hau bultzatu duen gogoia.

urte bat edo bi lehenago hitzaldiak izan zirenak, izenburuek adierazten dutenez²⁸); baina, kontuz, hori ez da txarra, artikulua kalitatezkoak baitira hitzaldiak bezalaxe, gertatzen dena da, adierazten digula nondik nora doan gure produkzioa eta zein bideetatik garatzen den, ez besterik. Ez hori bakarrik, egile bertsuak errepikatzen diren heinean, jorratutako gaiak ere ingurukoak dira (salbuespen batzuk ere badira, hala nola, Manex Goihenetxeren sintesi-lan eta monografiak). Horrek garbi uzten digu “dena” dagoela egiteko, orain arte egin dena egin gabe, egin ezin izango zena, bestalde, hitz jokoa posible bada.

3. IKERKETA ETA HISTORIA LAN IDATZIAK EUSKARAZ EGITEKO BEHARRAK ETA OZTOPOAK

Historia lanak (ni betiere Erdi Aroaz ari naizela ikerlanean ahaztu gabe) euskaraz egitea ez da erraza gaur egunean ere.

Zorionez, ikasketak euskaraz egin daitezke azken belaunaldietan, ez bakarrik eskoletan baita unibertsitatean ere (ni ere horrela ikasia naiz). Baina oraindik irakasleak oztopo handiekin aurkitzen dira ikasleei irakaskaiak euskaraz emateko orduan.

Bibliografia, oinarrizkoena ere, erdaraz (edozein dela ere) gomendatu eta erabili beharra izaten da; zer esanik ez, gai zehatzak edo monografiak direnean.

Hiztegia eta terminologia finkatu gabe daude oraindik, ahaleginak eginda badaude ere (onomastikako kontuetan sartzen bagara beldurgarriak dira zalantzak, baina ez dut insistituko²⁹). Eta azken urte hauetan ahalegin handiena horretan egin den arren (UZEI eta Euskalterm-en³⁰, adibidez –nahiz eta Historia hiztegia egin gabe geratu zen bere konplexutasunagatik³¹–, Elhuyarrek bere hiztegietan³², Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan³³ agertzen diren

28. Luzeegia litzateke artikulua honentzat hitzaldien zerrenda ere gehitzea bukaeran, baina kontsulta INGUMAN egin daiteke erraz.

29. Gai honen artikulua-egilearen inguruan ezagutzeko, ikus adibidez, AGIRRE GARCÍA, Jaione eta ICIAR MADINABEITIA, Irati. “Pertsona izen historikoak euskaraz idazteko proposamena” Euskaltzaindiaren XV. Nazioarteko kongresuaren aktetan argitaratuko dena edo AGIRRE GARCÍA, Jaione. “Historia idaztean eta irakasteen sortzen diren terminologia arazoak eta proposamenak egin beharra: errege-erreginen izenen adibidea”. In: ALBERDI LARIZGOITIA, Xabier eta UGARTEBURU GASTAÑARES, Iñaki (zuz.). *Espezialitate-hizkerak eta terminologia: jardunaldiak*, Leioa: EHU, 2004.

30. http://www1.euskadi.net/euskalterm/indice_e.htm.

31. 1979an egin zen proiektua (UZEI, “Histori Hiztegiroko Aurreproiektua”, 1979 [argitaratu gabeko txostena]), eskerrak eman nahi nizkioke UZEIkoei, Miel Loinazi hain zuzen ere, kopia bat emateagatik 2000. urtean UEUK antolatutako historialari Euskaldunen I. topaketan.

32. http://www1.euskadi.net/hizt_el/indice_e.htm.

33. <http://www.euskaltzaindia.net/hiztegiatua/>.

hitz batzuk erabakirik daudenak, Eusko Jaurlaritzako EIMA³⁴ proiektua onomastika ereduak ezartzeko testuliburuetarako etab.). Hala ere, batez ere, erabileraz eta eguneroko praktikaz, intuizioz ari gara terminoak erabiltzen historialariak. Ahal dugun neurrian eta daukagun prestakuntzarekin (oraintsu hasi gara euskara ikasitako jendea irakasten, eta horrek ez du ziurtatzen ez euskara maila hobea dugunik, ez terminologiarekin gure aurrekoek zituzten hutsuneak betetzea lortu dugunik; susmoa dut arazoak errepikatu egiten zaizkigula eta soluzioek pertsonalak izaten jarraitzen dutela eta, gehien jota, erabilerak finkatutako eta gure irakasleek beraien esfortzu pertsonalez sortutako termino ikasiak erabiltzen ditugula³⁵).

Lanak egiteko beharra, beraz, badago, klaseetarako lagungarri izango diren, testu, ikasmaterial, eskuliburu, artikulu zehatzagoak edota sintesi orokorrak, beharbada, egiteko³⁶. Eta, jakina, ikerkuntza. Zeren Iban Zalduak liburu aipamen batean dioen moduan:

Nik ez dut uste lan mota hau, sintesi lana, mezprezia daitekeenik, ikertzaile batzuek egin izan duten bezala. Zalantzarik gabe, ikerkuntza zuzena funtsezkoa da, hori gabe ez dagoelako historiarik, baina sintesi lanen garrantzia ez da txikiagoa. [...] historialari bihurtzeko hain zuzen ere, oso inportantea delako irakurtzea, horrek eskaintzen baitigu, behar dugun informazioa ez ezik, baita aritzeko modu bat³⁷.

Galdera argia sortzen da orduan, zergatik ez da sortzen? Lehen erantzuna argia da ere bai: unibertsitatea berria da eta gaztelaniaz ere gai askotan ez da sortzen, beraz, euskaraz gutxiago, beti atzetik goazelako. Baina bada beste ikuspuntutik ere aztertzeko. Harrigarria da ikustea, nola bairen Natura zientzietan irakaskuntza eta pedagogia aldizkariak (edozein

34. Euskal Irakaskuntza Materialgintza.

35. Hala ere, bada proiektu bat EHUen Euskara Zerbitzua euskara terminologia lantzeko, historiako irakasleekin frogatzen ari dena, haiak beraien kabuz euskaratutako materialak bilduz, eta terminologia sistematizatu eta Euskaltzaindiaren arauen arabera berridazteko eta irakasleei euskarazko hobekuntza ikastaroak eskaintzeaz gain, oraintsu testu orrazketa zerbitzua ezarri du irakaslerik haien apunteak edo dena delako zalantzak bidali eta zuzentzeko. UEUK ere ikusi du sistematizazio horren beharra azken bi urtetan argitaratu dituen bi liburuetan, eta bere zuzentzaile den Jose Ramon Etxebarriaren gidaritzapean.

36. UEUtik ere galdeketa bat egin da horri buruz eta baloratzen ari da zer behar dauden eskuliburu kontuetan Jone Garcia-k egin zuena, apenas eskulibururik ez zela euskarazko irakasgaietarako erakusten duena. EHUko Erdi Aroaren, Aro Berriaren eta Amerikaren Historia Sailerako Amanda Ruiz Fernández-ek kolaborazio beka lortu du Eusko Jaurlaritzak emana Behe Erdi Aroaren Historiarako material didaktikoa biltzeko eta UEUK kezka horrekin ikasmaterialak sortzeko duen lan-poltsa ere lortu duena, egile honen laguntza eta gidaritzapean.

37. ZALDUA, Iban. "Historia eta fikzioa – Ikerketa Berriak Euskal Herriko historian". In: *Kondaira.com*, 0. zenb., 2003, 1-5. orr. <http://www.kondaira.com/>.

hizkuntzaz ari naiz), zientzia horiek irakasten laguntzeko, baina, aldiz, historian ez da horrelakorik apenas³⁸.

Ikerketa lanetan beharrezkoa da euskaraz aritzea, ona al da? Lehenbizi hizkuntza aldetik baloratu beharreko kontua da arazo hau. Argi dago zenbat eta gehiago idatzi hizkuntza batean (zentzuzko era batean, behintzat), gero eta onuragarriago dela hizkuntza horrek izan ditzakeen arazoak konpontzeko eta betetzeko (terminologikoak edo estilokoak, esate baterako), bere normaltza lortzeaz gain, behar duen maila zientifikoa garatzeko.

Baina ikerketaren hedapen eta jakintza interesaren aldetik ere aztertu behar da gaia. Irakurleak lortzeko arazoak daude euskaraz. Gainera, norbere karrera akademikoa egitean euskaraz egindako lanek jasotzen duen balorazioa eskasa da (batez ere kanpoan), eta erdaraz idaztera jotzen da horregatik, norbere lekua lan akademikoan edo lan munduan lortu artean behintzat (lortu ondoren euskaraz egiten denik ezin da ondorioztatu hortik, hala eta guztiz ere, oraindik euskaraz idatzi ahal izan den garaia gaztea baita erlatiboki). Argitaratzearen arazoak daude baita ere; irakurlerik ez bada, argitaratzea ere ez delako erraza, enpresa pribatuek egiten duten heinean, onura ekonomikoa bilatzen dutelako, normala denez. Beraz, erakunde publikoen edo UEU bezalako enpresen esku egiten da eta egin daiteke³⁹. Esfortzu handia da ikerlan bat egitea “alferrik” egiteko. Jakina, sortzen ez bada, ez dago argitaratzerik ezta ere, eta euskaldunek ere ez dute euskaraz gai zientifikoak irakurtzeko eta erosteko ohiturarik hartuko. Are gehiago, produkzio kantitateak ere lagunduko luke balorazioak hobetzen (ideologia kontuetan ez naiz sartuko), sorgin gurpila sortzen delarik azkenean. Iban Zalduarekin jarraituz: “Zer esango dizuet: euskarazko artikulak eta liburuak, oraindik, irakaskuntza eta ikerkuntza prozesuaren hondakinak dira, hein handi batean”⁴⁰.

Kontuan hartu beharrezkoa da, ez dela berdina Euskal Herriaz ari den zer-bait euskaraz egitea edo Euskal Herriaz kanpoko gaia bada. Ikus dezagun zer egiten den kanpoan. Adibidez, Hungarian, dirudienez, hungariarrez idazten

38. Gizarte-zientziei buruzkoak edo pedagogiaz orokorrean badira. Euskaraz argitaratzen diren *Ekaia* (zientzietan) *Tantak* (pedagogian) eta *Gogoia* (filosofian) aldizkarietan ageri da kezka. *Ekaia*k euskara teknikoari eta terminologiari buruzko artikulak bat gehitzen du ale guztietan, eta *Tantak*ek pedagogia gai orokorrak aztertzen ditu (gaztelaniarazko *Aula* edo *Cuadernos de Pedagogia*ren gisara). Eta jakina UEUk argitaratzen duen UZTAROK ere bil litzake Gizarte—zientzien aldizkaria izanik, edo *Kondaira.com* atera berriak, baina ez daukagu historiaren didaktika lantzen duen aldizkari zehatzik (ezta gaztelaniaraz ere, adibidez).

39. Ez naiz ni nor baloratzeko egiten den ahalegina, irakurleak ikus beza zerrendan nortzuk argitaratzen duten eta nola; baina izan bedi adibidea Tarttalo argitaletxeak Manex Goihenetxeren *Histoire générale du Pays Basque*, Donostia, Elkarlanean, 1999 lana gaztelaniara itzulita argitaratu zuela urte berean *Historia General del País Vasco* (Donostia: Tarttalo, 1999) izenarekin.

40. Iban ZALDUA, “Historia eta fikzioa – Ikerketa Berriak Euskal Herriko historian”, *Kondaira.com*, 0. zenb., 2003, 1-5. orr. <http://www.kondaira.com/>.

dira bertako historiako lanak eta erdaran (ingelesez edo) gai orokorragoak direnak. Agian Katalunian eta beste leku batzuetan zer egiten duten ikusi beharko genuke. Kontuan izateko adibideak izan daitezke. Gaztelania, frantsesa eta ingelesaren kasuan, hizkuntza nagusiak izanda, beren hizkuntzan bakarrik lan egitera jotzen dute frantses nahiz espainiarrek (egia bada ere, ingeles hispanista on asko dela gaztelaniaz aritzen dena edo frantsesez dagokien lurraldeaz ari direnean); eta gaztelania hedapen handiko hizkuntza bada ere, ezin die lehiarik egin, oraingoz, zientzia mailan ingelesari edo frantsesari, ezta alemanari ere esparru askotan.

Baina helburua (edo irakurlea) zein den ere garbi izan behar da, unibertsitatean eta irakaskuntzan, oro har, testuak behar baitira lana egiteko (ezin da dena apunteen bidez egin), eta horretan gai orokorrak ere behar dira euskaraz. Horregatik, historialari batzuk uste dute, lizentzia mailaraino egin behar dela euskaraz, eta, ostera, ikerkuntza erdaraz egin behar dela. Jakina, ez halabeharrez gaztelaniaz, hedapen handiko hizkuntza batean baizik⁴¹, gero eta garbiago baitago puntuak ematen dituzten argitalpenak ingelesez, frantsesez eta abarrez eginak direla, ez bakarrik jende gehiagok irakur ditzan, baizik eta nazioartean zabaltzeak daukan izen onagatik ere bai; eta artikuluak puntuatzean mailak daudelako denok dakigunez –ez da berdin gure herriko aldizkarian argitaratu edo nazioarteko batean egitea, eta ez bakarrik irakurleak ere desberdinak izanik dibulgazioa edo zientzia bereizten direlako, baizik eta artikulua zientifiko berdina aldizkari internazional batean edo nazional batean ez delako gero berdin baloratuko *curriculumean*–.

Txanponaren beste aurpegia da, bertako historia euskaraz bakarrik eginenez gero, ez dela kanpoan irakurriko, ez bada, euskara ikasten dutela Euskal Herriko historian interesa duen ikerlari orok (Umberto Eco berak zioen moduan ezin da gai bat landu haren iturriak eta bibliografia ezagutzen ez den hizkuntza batean badira⁴²). Beste hizkuntzekin hain arrunta zaigun ideia hau, arrotza egiten zaigu askotan euskarari aplikatzen badiogu, eta ez luke horrela behar.

Beraz, lan egiten animatzea falta zaigu. Horrek guztiorrek ez du esan nahi erraza denik, adibidez, tesiak euskaraz egiteari buruzko iritzi desberdinak daude. Igone Zabalarri irakurri nion:

Burutik pasatzen zaizu agian euskaraz idatz zenezakeela, baina horrek hila-bete pare bat atzeratuko lizuke egoneza. Tesia euskaraz idatzi ala ez idatzi, berdin izango zara doktore eta ezin duzu gehiago [...]. Izan ere, doktore tesiak dira

41. Aldakorra izan daitekeena, lantzen den arloaren arabera. Adibidez, Erdi Aroaz ari bagara ingelesa edo frantsesa izan daitezke (italiera eta abarrek ere tradizio handia duten arren), baina Antzinaroaz ari bagara alemanez eskola oso garrantzitsua dago eta Historiaurrean frantsesez eta ingelesez zer esanik ez (batez ere, hominizaioari buruzko gaietan edo neolitizazioari buruzkoetan, adibidez).

42. Umberto ECO, “¿Es necesario conocer idiomas extranjeros?”, *Como se hace una tesis*, 42. or. eta hurrengoak.

ingeles ez diren goi mailako ikerlan berezitu bakarrik. Hortaz, goi mailako ikerkuntzaren esparruko euskara existitzeko aukera bakarra da tesiak euskaraz idaztea. [...] Epaimahaia euskaldun ez osatzea azken kasu honetan ezinezkoa dela? Orduan, zergatik ez idatzi tesia euskaraz eta ondoren gaztelan itzuli, prozeduraren azken urratsa bete ahal izateko? [...] nekez aurkituko dugu euskaraz idazten trebatzeko aukera hoberik⁴³.

Goazen baieztapen hauek banan-banan gure arlo hauetatik aztertzeraz. Egia da, neurri horretako ikerlan bat euskaraz egiten bada, euskaraz idazten ikasteko eta trebezia lortzeko bide ezin hobea dela, beste edozein ikerlan luze izan daitekeen moduan. Egia da, baita ere, arlo zientifiko gehienetan ingelesez idazten ez den ikerlan sendo bakarra dela tesia; baina, oraindik, historiaren kasuan ez da orokorrean ikerlana ingelesez egiten, ez behintzat, nire ustez, Historiaurrea, Antzinaroa eta Erdi Aroari dagokionez, ez bada atzerrian egin dela (eta kasu horretan ere, egin den herrialdearen arabera izan daiteke⁴⁴).

Bestalde, ez dut uste euskaraz tesia idazteak hilabete pare bat soilik atzeratuko lukeenik irakurketa, gehiago baizik, bostehun orri luzeko tesirik bi hilabetetan itzultzerik zaila delako, profesional batek eginda ere, eta gero zuzenketak egin beharko lirarteke. Gainera, tribunal euskalduna lortzea, behintzat gure arloetan ezinezkoa da oraindik, baldin eta espezialistak deitu nahi badira (edo geure arloari hurbilak, eta, zer esanik ez, tesiaren gaiari hurbilak aukeratuzkotan). Eta ez hori bakarrik, ezin badira euskaldunak izan, ez dute zure tesia juzgatzen, baizik eta haren itzulpena, eta ez da berdina nire uste apalean. Baina, jakina, tesia euskaraz egin ahal izateko, zuzendari euskalduna ere behar da, bestela idazketa –berez bakartia dena– bakartiagoa egingo bailuke, eta zuzendariaren laguntza, hain beharrezkoa, bestalde, ezinezkoa. Historiaurrean badira historialari doktore euskaldunak, Antzinaroan ere, nahiko aspalditik (behintzat aurreko hamarkadaren hasierarako, eta gutxira kopuruz asko ez baziren ere), baina Erdi Aroko historian orain dela urte gutxira arte ez zegoen bat ere ez (nik tesia 1996an hasi nuenean adibidez, geroztik bi doktore ditugun arren); eta tesia amaitu berri duen irakaslerik nekez eskaintzen da tesi bat zuzentzeraz. Beraz, kontua ez da hain erraza.

Gainera, ez dut uste goi mailako ikerketa bakarra tesia denik ere. Berez, pentsatu behar dugu hori goi mailako ikerketara sarrera baino ez dela historialari batentzat –bere bizitzako lan handienetako bat dela ukatu gabe–; egin behar duen lanik handiena izateak hasiberri batentzat itogarria izango litzatekeen ardura izango bailuke, eta, berez, oso gogorra den pauso akademikoa, *mission impossible* bihurtuko luke. Bada, zoritxarrez, oraindik, esfortzu handia da tesia euskaraz edo, hobe, elebiduna egitea, ez hilabete pare bateko kontua, nire uste apalean (kontuan izan gabe arazo eta egoera ekonomikoak, tesia egiteko baldintzatzaileak direla).

43. Igone ZABALA, "Tesiak euskaraz", *Campus*, 49. zenb., 1998ko apirila, 3. orr.

44. Horren adibidea Juan José LARREA, *La navarre du IVe au XIIe siècle: peuple et société*, Bibliothèque du Moyen Age 14, Paris etab., De Boeck Université, 1998 eta bere tesina: *Erdi Aroko hiri baten antroponimiaz: Artaxona 1077-1160: azterketa kuantitatiboa*, EHU aurkeztua eta argitaragabea.

Itzulpenak ere bultzatu behar dira, gaztelaniaz hain ohikoak eta arruntak direnak, euskaraz oraindik bide luzea dago egiteko (argitalpenek duten arazo bera dauka eta idaztean sortzen direnak terminologia eta estiloan). Hala ere, ez dirudi bidezkoa, euskaraz dakien historialari batek erdaraz idaztea bere testua eta gero euskarara itzultzeko ohitura bultzatzea⁴⁵. Hori bai, idazlearen euskara maila ere kontuan hartzekoa da, baina itzultzailea baino zuzentzailea egotea ez da egokiagoa? Bestela, ez da inoiz ikasiko eta maila hartuko, historialari euskalduna trebatuko, alegia. Bestalde, nolako itzulpenak? Filologoek euskaraz asko dakite, baina historialari baten gainbegiraketa eta zuzenketa behar du terminologiak, beraz, historiaz asko dakien filologo batek egin beharko lituzke, edo euskara asko dakien historialari batek, edo, hobe, bien arteko elkarlanaren ondorioa izan beharko lukete (batek itzuli eta besteak historiaren eta terminoen egokitasuna zuzendu, beti aldarrikatu eta gutxitan aplikatzen dugun disziplinartekotasuna bultzatuz horren bidez). Askotan gertatu dira itzulpen beldurgarriak edo irakurtezinak (ez dugu adibiderik emango, ez da behar), zorionez, euskararen munduan estiloari buruzko kezka sortzen joan den heinean, gero eta gaindituagoak daudenak (ez da berdina testu zuzena eta testu egokia, X. Alberdi Larizgoitiren hitzetan:

Hizkuntza gramatika-arauak [...] eta akademiaren arauak [...] hizkuntza zuzen erabiltzeko baldintza beharrezkoak badira ere, ez dira baldintza nahikoa hizkuntza ondo erabiltzeko: hizkuntza “onak” zuzentasuna du oinarri, baina zuzentasuna ez ezik, “egokitasuna” ere ezinbestekoa du⁴⁶).

4. ONDORIOAK

Bada, eta labur bukatzeko, garbi dago, historia euskaraz egiterik badela eta egin behar dela. Euskal Herriari buruzko historia eta gai orokorren sintesiak euskaraz egiten konformatu behar al dugu? Erantzuna erraza da nire ustez: ez. Euskaraz nahi dugunaz idazteko eta ikertzeko aukera izan behar dugu, eta hala egin behar dugu gure hizkuntzak iraungo badu; justifikaziorik behar izan gabe (tristeia da XXI. mendean oraindik Etxepareren justifikazioarekin eta aldarriekin ibili beharra edo oraindik egunerokotasuna dutela ikustea:

45. Hori da LUR hiztegi entziklopediakoak bultzatutako bidea, eta kritikatu izan zaionean (Pruden Gartzia zioen moduan “*lanaren pisu nagusia euskaraz ongi dakitena historialari profesional euskaldunengan jarri behar da*”), oso ondo hartua izan ez dena, historialarion maila eskasa aitzakia gisa jarriz eta euskaraz egiten den edozer esfortzu ohoragarri gisa hartu behar delako, antza. Eztabaida hau jarraitzeko ikus: Iban ZALDUA, “(Euskal) kritikaren ezintasunari buruzko ohar bi”, *Jakin*, 126. zenb., 2001eko irail-urria, 41-46. orr. eta ZALDUA, Iban, *UZTARO*, 27. zenb., 107-125. orr. Euskaraz edo elebidun argitaratu diren beste hainbat libururen bidea ere bada, bukaerako zerrendan gehitu ez direnak horregatik, baina ez horregatik erabilgarri ez zaizkigunak.

46. ALBERDI LARIZGOITI, Xabier (egilea) eta UGARTEBURU GASTAÑARES, Iñaki (laguntzailea). *Euskaltzaindiaren araugintza berria: ikastaroa*, Bilbo, EHU, 1999.

Ceren bascoac baitira abil animos eta gentil
eta hetan içan baita eta baita sciencia gucietan lettratu
handiric miraz nago iauna nola batere ezten assayatu
bere lengoage propriaren fauoretan heuscaraz cerbait
obra eguitera eta scributan imeitera ceren ladin publica
mundo gucietara berce lengoagiac beçala hayn.
scribatzeco hon dela. Eta causa honegatic guelditzen da
abataturic eceyn reputacione vague eta berce nacione
oroc vste dute ecin deusere scriba dayteyela lengoage
hartan nola berce oroc baitute scribatzen beryan. [...] honetic dadin aitzinerat augmenta continua eta publica
mundo gucietara eta bascoec bercec beçala duten bere
lengoagian scribuz cerbait doctrina eta plazer [...]47).

Horrek ez du esan nahi beste hizkuntzetan ere idazterik ez dugunik (kanpoko adibiderik behar badugu hor Amin Maalouf⁴⁸). Azken batean, zenbat pertsona daude interesatuta gai batean edozein dela ere? Adituak direnak eta beste gutxi batzuk, eta adituak kopuruz gutxi dira beti. Itzulpenak ere bulztatu behar dira, kanpoko egile interesgarrienen lana hurbiltzeko gure gizartera, ez hainbeste gure sorkuntzaren ordezeko legez.

Hori bai, idazten denaren kalitatea eta egokitasuna zaindu behar dugu, zientzia egiten ari garela, zein dibulgazioa egiten ari garela. Batzuk harritu egiten dira oraindik euskaraz gauza onak idatz eta argitara daitezkeela ikusita, eta hori gaingintzeko "ohitu" egin behar gara eta ditugu horretara⁴⁹. Eta horrekin gure lekua bilatu beharko dugu historiografia orokorraren arloan, aipamen bereziturik behar izan gabe. Bada, hasi garen lekutik buka dezagun, alegia, ez dela bazter utzi behar egilerik apalena ere ikerketa batean, eta leku hori da euskaraz egindako historiografiak behar duena izan, bestearekin batera. Bada, "*Heuscara / Ialgui adi* [Historiaren] *mundura*"⁵⁰.

47. ETXEPARE, Bernard. *Linguae vasconum primitiae*, Bilbo, Euskaltzaindia, 1995. [argitalpenaren arduradunak ALTUNA, Patxi et al.]. Sareko argitalpena ere bada: <http://www.vc.ehu.es/gordailua/>.

48. Libanoarra eta kristaua, arabiarra zen bere ama hizkuntza, baina frantsesez idazten du bere familian izandako gorabehera bereziengatik, MAALOUF, Amin. *Identidades asesinas*, Madril, Alianza, 2002, 24-30. orr.

49. Adibide garbia jartzeko J.A. Mujika Alustizak megalitismoari buruz egindako artikulua euskaraz (MUJIKALUSTIZA, J.A., "Megalitismoaren inguruko hausnarketak: eraikuntza, erabilera eta erritualak", in KINTANA, J. eta ARTETXE, K. (arg.), *Ikerketa berriak Euskal Herriko historian: metodologia aitzindariak eta berrikuntza historiografiakoak*, Bilbo, Udako Euskal Unibertsitatea, 2002, 13-44. orr.), artikulua bikaina da, Euskal Herriko megalitoez orain arte egin den onenetakoa maila zientifikoaren eta euskararen aldetik; beraz, megalitismoan aditua den edo izan nahi duen batek irakurri beharrekoa da, dudarik gabe.

50. ETXEPARE, Bernard. *Linguae, op. cit.*, artikulua honen egileak gehitutako korxete arteko hitzarekin.

Esker on oharra: Esker on ohar bat egin beharrean nago zenbait daturen kontsulta erraztu zaidalako bibliografian edota *on-line* ere ez direnak: EHuren bibliografia datu-basea eskuratu eta erabili ahal izan dut Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuari esker; Karmele Artetxeri Inguma datu-basean lana egiten duena artikulu hau idaztean eta Jone Garcia-ri unibertsitateko irakasgaietarako eskuliburuez egindako beren lanari buruzko iritziengatik; Alberto Angulo-ri utzitako materialagatik; Oskar Álvarez Gila-ri hitzaldirako emandako ideiegatik, Irati Iciar-i EIMari buruz hitz egiteagatik; Pruden Gartzari, Zuzendari den Azkue Bibliotekako materialak aztertzen laguntzeagatik; Sara Jorge-ri, EHuko liburutegiko katalogatzaile eta dokumentalistari eskainitako erreferentziengatik eta Etor Telleria, Joxan Mujika eta Andoni Tarriño-ri beren laguntzarengatik.

5. LAN AZTERTUEN BIBLIOGRAFIA BILDUMA⁵¹

5.1. Liburuak

- AA.AA. *Izarren bidea: Santiagoko Bideak Gipuzkoan barrena zituen adarrez*, Donostia: Kutxa Fundazioa, 1999.
- ANDONEGI, Xabier. *Roger Bacon: unibertsitatea eta zientziaren historia Erdi Aroan*, Irakurgaiak 12, Donostia: Jakin, 1999.
- ARRIETA, Leyre. *Mutriku: gure historiara hurbiltzen*, Mutriku: Mutrikuko udala, 1996.
- ARRINDA ALBISU, Anastasio. *Euskal Aztarnak: Cro-Magnon'etik Erroma'ra*, Euskera-zaintza, 1996.
- ARTETXE SÁNCHEZ, Karmele (arg.). *Historia eta fikzioa: Karlomagno Euskal Herrian VIII-IX. mendeetan*, Bilbo: UEU, 2001.
- ARTOLA ZUBILLAGA, Fermin. *Hereseak Durango aldean XV. mendean*, Donostia: Kriseilu, 1986.
- AYESA, M^a P. *Euskal artearen historia: Erromanikoa*, Donostia: Kriseilu, 1990.
- AZKARATE GARAI-OLAUN, Agustín. *Euskal Herriaren historiak II. Historiaurrea*, Bilbo: EHU, 1985
- AZKARATE GARAI-OLAUN, Agustín eta GARCÍA CAMINO, Iñaki. *Euskal Herriko Erdi Aroko hilarri eta inskripzioak: (VI-XI. mendeak)*, Bilbo: EHU, 1996.
- BANDRES UNANUE, Luis M. *Zientziaren historiografia (I) (Aurrehistoriatik Erdi Arorarte)*, Donostia: Gaiak, 1992.
- BASTERRETXEA, Amaia. *Bergara: hiria Erdi Aroan*, Bergara: Bergarako udala, 1991.
- BENGOETXEA REMENTERIA, Belen eta CAJIGAS PANERA, Silvia. *Durango: hiri egituraren aldaketa historikoak*, Biblioteca durangarra 3, Durango: Durangoko Arte eta Historia Museoa, 1997.
- BENGOETXEA REMENTERIA, Belen. *Iurreta, ertarotik XX. mendera. Arte eta Historia*, Abadiño: Gerediaga elkarte, 1998.

51. Ahal dela itzulpenak eta dibulgazioko lanak ez dira sartu.

- BENITO DOMÍNGUEZ, Ana M. eta ESTEBAN DELGADO, Milagros; IZQUIERDO MARCULETA, Maite. *Bidasoa Behea erromatarren garaian: Irungo Ama Xantalengo Museoa ezagutzeko gidaliburua*, Egileak editore, 1995.
- BURDINOLA. *Haizeolak: aintzinako burdinolak*, Legazpia: Burdinola, Legazpiko Burdin Museoa-ren Lagunen Elkarte, 1998.
- EGUIA LÓPEZ de SABANDO, José eta PORTILLA, Micaela. *Euskal Artearen historia. Gotikoa Araban*, Donostia: Kriseilu, 1990.
- ELORZA MAIZTEGUI, Javier. *Soraluzeko udalerrian dagoen Gurutze Santuaren ermitaren historia, orain San Roke izenez ezagutzen*, Soraluze: Soraluzeko Udala, 1996.
- ESNAOLA, Isabel eta MORENO, Mertxe. *Euskal Artearen Historia. Gotikoa Bizkaian*, Donostia: Kriseilu, 1990.
- ETXEBERRIA, Malores. *Euskal Hiztegi historikoa: Erdi Aroa eta Aro Modernoa*, Donostia: Gordailu, 1987.
- GIL ABAD, Dona. *Elorrio. Uriaren Erdi Aroko hirigintza*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen zerbitzua, 1997.
- GIL MASSA, Jesús eta ARAMBURU, M^a J. *Euskal Artearen historia. Gotikoa Nafarroan*, Donostia: Kriseilu, 1990.
- INTXAUSTI REKONDO, Joseba. *Mendez mende. Histori agiritegia. Erdi Aroa. Fitxak*, Lizarrak, Elkar, 1987.
- INTXAUSTI REKONDO, Joseba. *Euskal historialariak eta frantziskotarrak: azterketa historiografikoa*, Arantzazu-Oñati: Frantziskotar argitaletxea, 1998.
- IRIZAR, R. eta ZURUTUZA, J. L. *Asisko Frantzisko: idazkiak, biografia eta garaiko dokumentuak. Asisko Klara: idazkiak*, Oñati-Arantzazu: Frantziskotar argitaletxea, 2000.
- ITURRIOTZ LAUZIRIKA, Ander. *Boterea gizarte homerikoan*, Donostia: Utriusque Vasconiae, 2002.
- KINTANA GOIRIENA, Jurgi eta KINTANA URTIAGA, Xabier. *Judu herriaren ibilbide luzea*, Donostia: Gaiak: 1994.
- KORTADI Edorta, MORENO, Mertxe eta ARAMBURU, M^a J. *Euskal Artearen Historia. Gotikoa Gipuzkoan eta Iparraldean*, Donostia: Kriseilu, 1990.
- LARRAÑAGA ELORZA, Koldo. *Euskal Herria Antzinate Berantiarrean eta Lehen Ertarotan. materiale eta agiriak*, Leioa, EHU: 1992.
- LARRAÑAGA ELORZA, Koldo. *Euskal Herria Antzinatean: materiale eta agiriak*, Euskal Herriaren Historiarako Materiale eta Agiriak 2, Donostia: Kriseilu, 1988 [itzultzaile-taldea, Jose Luis Agote, Juanjo Barandiarán, Jerardo Elortza (koord.); mapagileak, Xabier Larrañaga].
- LARRAÑAGA ELORZA, Koldo. *Erromatarren kolonikuntza Euskal Herrian*, Bilbo: Mensajero, 1991.
- LARRAÑAGA ELORZA, Xabier. *Deba haraneko historiaurrea*, Bergara: Bergarako udala, 1991.
- LATIEGI ERASO, Bixente. *Apostoluen eta martirien denborako eliza: (30'garren urtetik 323'garren urtera)*, Eleiz edesti sorta, Acedo: Wilsen, 1991.
- LATIEGI ERASO, Bixente. *Elizak eta Estaduak bat egin zuten denborako eliza: (306'garren urtetik 476'garren urtera)*, Eleiz edesti sorta, Acedo: Wilsen, 1993.

- LATIEGI ERASO, Bixente. *Euskal Kristautasunaren sorkuntza: nor, noiz, nola, nondik: Euskalerrira kristautasuna*, Denbora zarretako euskal elizaren edestia 1, Ollobarren: Wilsen, 1996.
- LATIEGI ERASO, Bixente. *Euskal kristautasunaren zabalkuntza: bosgarren mendeko Euskalerrri jentillean: gure asaben arteko kristautasuna*, Denbora zarretako euskal elizaren edestia 2, Ollobarren: Wilsen, 1997.
- LATIEGI ERASO, Bixente. *Euskal Kristautasunaren kristautasunaren sendokuntza: seigarren eta zazpigarren mendeetan: gure asaben arteko kristautasuna*, Denbora zarretako euskal elizaren edestia 3, Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 2001.
- MARRUEDO, José M. eta POLO, Txaro. *Bizkaiko zubiak*, Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 1992.
- MURGIL TALDEA. *Gure arbaso zaharren sukaldaritzak (elikadura-ohiturak kobazulotik monasteriora)*, Donostia: Gaiak, 2000.
- PEILLEN, Txomin. *Zuberoako itzal-argiak. Euskarako jakilegoak. Lehen aldia: XV, XVI mende zaharrak*, Donostia-Baiona: Elkar, 1988.
- SAN MARTIN "OTSALAR" ORTIZ de ZARATE, Juan. *Erromanikoa Euskal Herrian*, Donostia: Gordailu, 1983.
- URKIZA, Julen. *Elizaren historia Euskal Herrian, "Vasconia sacra" 1*, Larrea-Zornotza: El Carmen, 1995.
- URRETA LETURIONDO, Iñaki. *Leintz Baiarak: 500 urte Gipuzkoan (1497-1997)*, Aretxabaleta-Eskoriatza: Aretxabaletako udala-Eskoriatzako udala, 1997.
- ZALDUA GONZÁLEZ, Iban et alii. *Historia testu bidez*, Leioa-Gasteiz: EHU-Arabako Foru Aldundia, 1999.
- ZALDUA, Luis M. *Saroeak Urnietan: saroeen inguruko ikerketak zertan diren Euskal Herrian*, Urnieta: Kulturnieta, 1996.

5.2. Artikuluak

5.2.1. Historiaurrea

- ALTUNA, J.; AZKARATE GARAI-OLAUN, A.; LARRAÑAGA ELORZA, X.; MUJICA ALUSTIZA, J. A. "Hiztegia". In: AZKARATE GARAI-OLAUN, Agustín (arg.). *Euskal Herriaren historiaz II. Historiaurrea*, Bilbo: EHU, 1985; 199-207. orr.
- ARANZASTI, M.; IBAÑEZ, Txaro; OLASKOAGA, M.; PEÑALVER, Xabier; PEÑALBA, M. C.; UGALDE, Tx. eta URIZ, A. "Mulisko Gaineko indusketa arkeologikoa. Urnieta-Hernani (Gipuzkoa)". In: *Munibe: antropología-arkeología*, 39. zenb., 1987; Donostia: Aranzadi; 93-120. orr.
- ARRIZABALAGA VALBUENA, Alvaro, "Goi-paleolitoaren hasierako faseak". In: *Uztaro*, 1. zenb., 1991; Bilbo: UEU; 53-75. orr.
- ARRIZABALAGA VALBUENA, Alvaro, "Labeko kobako aztarnategi arkeologikoaren indusketa (Arrasate, Gipuzkoa)". In: *Cuadernos de Sección. Prehistoria-Arqueología*, 4. zenb., 1991; Donostia: Eusko Ikaskuntza; 9-39. orr.
- AZKARATE GARAI-OLAUN, Agustín. "Aurkezpena: zenbait datu eta gogoeta Euskal Prehistoriaz". In: AZKARATE GARAI-OLAUN, Agustín (arg.). *Euskal Herriaren historiaz II. Historiaurrea*, Bilbo: EHU, 1985; 5-11. orr.

- BARANDIARAN AIERBE, Jose Migel. "Euskal Herriaren historiak II. Historiaurrea". In: AZKARATE GARAI-OLAUN, Agustín (arg.). *Euskal Herriaren historiak II. Historiaurrea*, Bilbo: EHU, 1985; 13-16. orr.
- GORROTXATEGI, Xabier eta YARRITU, M^a J. "Ilso Betaio (Enkaterria, Bizkaia) Kalkolitiar mendiko herriska". In: *Kobie: paleoantropología*, 24. zenb., 1997; 5-32. orr.
- IHARRITU, M^a J. eta GORROTXATEGI, Xabier. "Areatza haitzuloko "Oreinarene Gordeleku" eta "Zezenarene Plataforma" gordailuen ikerketa arkeologikoa (Galdamiz, Enkaterria, Bizkaia)". In: *Isturitz*, 11. zenb., 2001; 171-223. orr.
- HERRASTI ERLOGORRI, Lourdes. "Paleopatologia: gure arbasoen gaixotasunak". In: KINTANA GOIRIENA, Jurgi eta ARTETXE SÁNCHEZ, Karnele (arg.). *Ikerketa berriak Euskal Herriko historian: metodologia aitzindariak eta berrikuntza historiografikoak*, Bilbo: UEU, 2002; 45-60. orr.
- LARRAÑAGA ELORZA, Xabier. "Grafikak eta mapak". In: AZKARATE GARAI-OLAUN, Agustín (arg.). *Euskal Herriaren historiak II. Historiaurrea*, Bilbo: EHU, 1985; 187-198. orr.
- MUJIIKA ALUSTIZA, J.A. "Euskal historiaurrearen historiografia". In: AZKARATE GARAI-OLAUN, Agustín (arg.). *Euskal Herriaren historiak II. Historiaurrea*, Bilbo: EHU, 1985; 17-39. orr.
- MUJIIKA ALUSTIZA, J.A. "Euskal Arkeologiaren lanak. Historia eta azken hamarkada". In: *Jakin*, 54. zenb., 1989; 197-211. orr.
- MUJIIKA ALUSTIZA, J.A. "Paleolito-ondorene Metal-Aroa arte Euskal Herrian". In: *Uztaro*, 4. zenb., 1992; 33-84. orr.
- MUJIIKA ALUSTIZA, J.A. "Santimamiñeko basurde bi humero ukituak". In: *Kobie: paleoantropología*, 20. zenb., 1993; 51-55. orr.
- MUJIIKA ALUSTIZA, J.A. "Megalitismoaren inguruko hausnarketak: eraikuntza, erabileta eta erritualak". In: KINTANA GOIRIENA, Jurgi eta ARTETXE SÁNCHEZ, Karnele (arg.). *Ikerketa berriak Euskal Herriko historian: metodologia aitzindariak eta berrikuntza historiografikoak*, Bilbo, Udako Euskal Unibertsitatea, 2002; 13-44. orr.
- OLAETXEA ELOSEGI, Carlos. "Metal aroak Euskal Herrian. Eneolito, Brontze, eta Burdin Aroa", *Uztaro*, 1. zenb., 1991, 77-103. orr.
- ONDARRA ERDOZIA, Frantzisko. "Bertizarana eta Malerrekako trikuharriak". In: *Kobie: paleoantropología*, 17. zenb., 1988; 169-179. orr.
- ONDARRA ERDOZIA, Frantzisko. "Edestiaurreko oroitarri berriak Nafarroan". In: *Kobie: paleoantropología*, 18. zenb., 1989; 167-182. orr.
- ONDARRA ERDOZIA, Frantzisko. "Lantz eta Ultzamako mugetan edestiaurreko oroitarri berriak aurkituak". In: *Cuadernos de Etnología y Etnografía*, 54. zenb., 1989, 503-519. orr.
- ONDARRA ERDOZIA, Frantzisko. "Lantz hiriko mendietan edestiaurreko oroitarri berriak". In: *Cuadernos de Etnología y Etnografía*, 56. zenb., 1990; 335-340. orr.
- ONDARRA ERDOZIA, Frantzisko. "Edesti aurreko oroitarri berriak han eta hemen Nafarroan". In: *Trabajos De Arqueología Navarra*, 11. zenb., 1994; 31-37. orr.
- PEÑALVER, Xabier eta URIBARRI, Eloísa. "Onyi-Zistako indusketa arkeologikoa (Urnietak, Gipuzkoa)". In: *Munibe: antropología-arkeología*, 48. zenb., 1996; 81-91. orr.
- POLO, Sonia. "Historiaurrea eta emakumea". In: AA. AA. *Emakumeak Euskal Herriko historian*, Bilbo: IPES, 1998; 37-64. orr.

- SAN MARTIN "OTSALAR" ORTIZ de ZARATE, Juan, "Gure gaztak neolitos garaitikakoak ote?". In: *Egan*, 4. zenb., 1998; 241. orr.
- SAN MARTIN "OTSALAR" ORTIZ de ZARATE, Juan. "Aralardik, lehen gizonen urratsak. Eta antzinako egoitza bereziak Erdi Aroko zenbait lekuko direla". In: *Bidasoako Ikaskuntzen Aldizkaria*, 16. zenb., 1998; 45-59. orr.
- SAN MARTIN "OTSALAR" ORTIZ de ZARATE, Juan. "Paleolitos garaiko aztarnak Hondarribian". In: *Bidasoako Ikaskuntzen Aldizkaria*, 19. zenb., 1999; 115-124. orr.
- SORAZU, E. "Euskal Historiaurreko erlijiotasuna". In: *Euskal Herria*, I. zenb., 1985, 327-331. orr.
- UGARTE, Felix. "Euskal Herriko bilakaera geomorfologikoa (Pleistozenoa-Holozenoa)", *Uztaro*, 4. zenb., 1992; 25-31. orr.

5.2.2. Antzinaroa

- AGIRRE, Garbiñe. "Druidak Zesarren testuetan", *Uztaro*, 14. zenb., 1995; Bilbo, UEU; 21-48. orr.
- ALVAREZ PEREZ-SOSTOA, Denis. "Esklabo-iraultzak erromatar errepublikaren krisialdian: gizarte-gatazken eredu bat". In: *Uztaro*, 36. zenb., 2001; Bilbo, UEU; 25-39. orr.
- BARTOLOMÉ, Jesús. "Zesar Tito Libioren lanean: imitazio eraldatzailearen etsenplu bat diskurtso historikoan". In: *Uztaro*, 16. zenb., 1996; Bilbo, UEU; 67-77. orr.
- HERNÁNDEZ, Amelia. "Bigarren Aintzina". In: *Uztaro*, 15. zenb., 1995; Bilbo, UEU; 37-53. orr.
- LARRAÑAGA ELORZA, Koldo. "Erromatar inperioa hondoratu zeneko egoera Euskal Herrian". In: AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, Joseba eta LOPEZ ATXURRA, Rafael (arg.). *Euskal Herriaren historiaz I*, Bilbo: EHU, 1985; 69-95. orr.
- LARRAÑAGA ELORZA, Koldo. "Euskal Herriko erromatar kolonizazioaren zenbait ikuspegi". In: AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, Joseba eta LOPEZ ATXURRA, Rafael (arg.). *Euskal Herriaren historiaz I*, Bilbo: EHU, 1985; 29-52. orr.
- URKIZA, Julen. "Lapurdi-Baionako elizbarrutiaren historiaz". In: *Karmel*, 204. zenb., 1993-2; 83-100. orr.
- URTEAGA ARTIGAS, Mercedes. "Euskal Herriko merkataritzaren garrantzitsua aintzinatean". In: AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, Joseba eta LOPEZ ATXURRA, Rafael (arg.). *Euskal Herriaren historiaz I*, Bilbo: EHU, 1985; 53-68. orr.
- URTASUN, Erlantz. "Nafarroako Herribeherako baskoi populua erromatar aldian: Arkeologia eta Hizkuntza". In: *Isturitz*, 9. zenb., 1997; 187-203. orr.

5.2.3. Erdi Aroa

- AGIRRE, A.; ANGULO, O.; ETXANIZ, J.; ETXEBERRIA, B.; GARZIA, M.; IMAZ, I.; OTEIZA, I.; SASIETA, A.; URIZAR, R.; VITORIA, E. "Gipuzkoako gizarte antolakuntza eta pentsamoldearen inguruko gerturatzea. Olaberria burdinola (XV-XIX)". In: *Beasaingo Paperak*, 10. zenb., 230-243, Beasain, 2001; 43-51. orr.
- AGIRRE, J. J. "Agustindarren monastegiak Gipuzkoan. Horien historiara hurbiltzen (1245-1986)". In: *Sancho el Sabio*, 1, 1991; 289-309. orr.

- AGIRRE GARCÍA, Jaione. "Gizartea eta ideologia Karlomagnoen garaian (VIII-IX. mendeak)". In: ARTETXE SÁNCHEZ, Karmele (arg.). *Historia eta fikzioa: Karlomagno Euskal Herrian VIII-IX. mendeetan*, Bilbo: UEU, 2001; 7-26. orr.
- AGIRRE GARCÍA, Jaione. "Durango eta Bilboren arteko harremanak Erdi Aroaren bukeran eta Aro Berriaren hasieran (XV. eta XVI. mendeetan)". In: *Bidebarrieta, Actas del Congreso VII Centenario Fundación de Bilbao*, 12. zenb., I. liburukia, 1996; Bilbo, 2003; 199-221. orr.
- AGIRRE GARCÍA, Jaione. "Errotak eta ogi labeak Durangon XV. eta XVI. mendeetan: kontrola eta onura". In: *Beasaingo Paperak*, 10. zenb., 2001; Beasain, 2001; 140-149. orr.
- ARAGON RUANO, Alvaro. "Basoa Euskal Herriko historian zehar". In: *Uztaro*, 29. zenb., 1999; 25-38. orr.
- ARAGONES ESTELLA, Esperanza. "Beste munduko ikuspenak Nafarroako erromanikokan (zeru-infernuen irudikapenak eta bekatu bakoitzari dagozkion zigorrak XII. mendean eta XIII. mendearen lehen erdian)". In: *Eleria*, 1. zenb., 1997; 93-97. orr.
- ARANBURU UGARTEMENDIA, Pello J. "Alkiza, auzo izatetik hiribildu izatera (1348-1731). Aiztondo eta Tolosa tarteko Erniopeko auzo "askea"". In: *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, 32. zenb., 1998; 109-534. orr.
- ARBELBIDE MENDIBURU, Xipri. "Euskaldunak Aymeric Picauden arabera". In: *Egan*, 1. zenb., 1987; 23-28. orr.
- ARRIZABALAGA, Juan M^o. "Euskal Herriko 12 gaztelu eta dorretxe", *Karmel*, 221. zenb., 82-94. orr.
- AZKARATE GARAI-OLAUN, Agustín. "Goi-ertaroko bizkaitar epigrafiaz: Memaiako Sta. Marina (Elorrio-Bizkaia)", in AZKARATE GARAI-OLAUN, Agustín (koord.). *Historia eta gizarte-zientzien urtekaria (II)*, Bilbo: UEU, 1982; 47-72. orr.
- AZKARATE GARAI-OLAUN, Agustín. "Bizkaitar lurraldearen okupazio xehetasunak goietaroko mendeetan ezagutzen". In: AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, Joseba eta LOPEZ ATXURRA, Rafael (arg.). *Euskal Herriaren historia I*, Bilbo: EHU, 1985; 97-119. orr.
- BENGOETXEA REMENTERIA, Belén. "Antzinaro Berantiarreko nekropoliak Euskal Herrian. Frankoen eragina Euskal Herrian". In: ARTETXE SÁNCHEZ, Karmele (arg.). *Historia eta fikzioa: Karlomagno Euskal Herrian VIII-IX. mendeetan*, Bilbo: UEU, 2001; 93-120. orr.
- BILBAO, Gidor. "XII. mendeko Euskal Herria Santiago bidean: *Liber Santi Iacobi V, 7*". In: *Uztaro*, 10. zenb., 1993; 61-84. orr.
- FUENTE RODRIGUEZ, Luis A. de la. "Korladuradun urreztatuta: bilakaera historiko eta teknikoa. Kontserbazio eta zaharberritzeko tratamenduak. Euskadin dauden kasuak". In: *Sancho el Sabio*, 10. zenb., 1999; 53-78. orr.
- ICIAR MADINABEITIA, Irati eta ARTETXE SÁNCHEZ, Karmele. "Goi Erdi Aroko arkeologiaren ikuspegi orokorra: Hego Euskal Herriaren kasua", in ARTETXE SÁNCHEZ, Karmele (arg.). *Historia eta fikzioa: Karlomagno Euskal Herrian VIII-IX. mendeetan*, Bilbo: UEU, 2001; 51-92. orr.
- INTXAUSTI REKONDO, Joseba. "Amerika XV. mendearen azkenetan". In: *Jakin*, 70. zenb., 1992; 11-30. orr.
- INTXAUSTI REKONDO, Joseba. "Granada 1492: garbiketa etniko baten bezperan", *Jakin*, 74. zenb., 1993; 63-76. orr.

- INTXAUSTI REKONDO, Joseba. "Euskal Antzinate berantiarraz eta Lehen Ertaroz", *Sancho el Sabio*, 4. zenb., 1994; 313-330. orr.
- JIMENO ARANGUREN, Roldán. "Sainduen debozio familiarra antroponimiaren bidez Nafarroan". In: *Vasconia*, 28. zenb., 1999; 127-142. orr.
- JIMENO ARANGUREN, Roldán. "Lehen euskal hagiografia kondaira eta historiaren artean". In: ARTETXE SÁNCHEZ, Karmele (arg.), *Historia eta fikzioa: Karlomagno Euskal Herrian VIII-IX. mendeetan*, Bilbo: UEU, 2001; 121-134. orr.
- LATIEGI ERASO, Bixente, "Erreiñu bisigotaren ondarena eusko-gudarien ekintza?". In: *Karmel*, 236. zenb., 2001; 3-27. orr.
- LEKUONA, Manuel. "Erdi-aroko arte ederrak ego-euskalerrian". In: *Cuadernos de Sección de Eusko Ikaskuntza (Artes plásticas y monumentales)*, 1. zenb., 1982; 15-37. orr.
- LEMA PUEYO, Jose Angel. "Erdi Aroko gizartea gaisotasunaren aurrean: erantzunak eta jarrerak", *Uztaro*, 18. zenb., 1996; 17- 39. orr.
- LEMA PUEYO, Jose Angel. "Iruñeko erresumaren sorrera (VIII. mendetik X. mendera arte): interpretazioaren bila". In: ARTETXE SÁNCHEZ, Karmele (arg.), *Historia eta fikzioa: Karlomagno Euskal Herrian VIII-IX. mendeetan*, Bilbo: UEU, 2001; 27-49. orr.
- LEMA PUEYO, Jose Angel. "Euskal mediebalismoaren zenbait alderdi: lorpenak eta hutsuneak". In: KINTANA GOIRIENA, Jurgi eta ARTETXE SÁNCHEZ, Karmele (arg.), *Ikerketa berriak Euskal Herriko historian: metodologia aitzindariak eta berrikuntza historiografikoak*, Bilbo: UEU, 2002; 75-91. orr.
- LOBERA REVILLA, Angel. "Historian zehar San Andres Etxebarriko elizarekin zerikusirik izan duten alderdiak". In: *Karmel*, 233. zenb. 1998; 155-158. orr.
- PUXANA AGIRREGABIRIA, Pedro. "Bizkaiko Forua dala-ta". In: *Karmel*, 176. zenb., 1986; 6-19. orr.
- RIAÑO PEREZ, Eugenio. "Hamarrenak Euskal Herrian: Calahorrako eliz barrutia XI-XIII. mendeetan". In: *Uztaro*, 8. zenb., 1993; 35-52. orr.
- SAN MARTIN "OTSALAR" ORTIZ de ZARATE, Juan. "Santiago bidea Hondarribitik". In: *Egan*, 2. zenb., 1996; 243-245. orr.
- SAN MARTIN "OTSALAR" ORTIZ de ZARATE, Juan. "Mutriku. Hiri baten Historiarako oharra". In: *Egan*, 4. zenb., 1998; 229-237. orr.
- ZURUTUZA SUNSUNDEGI, Lander. "Lezoandiko jaunaren hilketa". In: *Bidasoako Ikasketzen Aldizkaria*, 19. zenb., 1999; 77-84. orr.

5.3. Liburu Aipamenak

- AGIRRE GARCÍA, Jaione. "Colin TUDGE-n *Neanderthals, Bandits and Farmers. How Agriculture Really Began*, Darwinism Today series, London, Weidenfeld & Nicolson, 1998, liburuaz". In: *Uztaro*, 33. alea, 2000. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 2000; 119-124. orr.
- IRAZGOITI, Martin. "Gizakiaren sorreraz". In: *Larrun*, 15. zenb., 1992 [Liburua: Josef Reichholf. *L´emergence de l´homme*].
- LARRAZABAL ANTIA, Jesus M., "Histoire de la Rhétorique. Des Grecs à nos jours". In: *Gogoa*, 2001-2. zenb. [Liburua: Michel Meyer (zuzendaria). *Histoire de la Rhétorique. Des Grecs à nous jours*].

- MUJIKA ALUSTIZA, J.A. "La cueva de Isturitz. Su yacimiento y sus relaciones con la Cornisa Cantábrica". In: *Revista Inernacional de Estudio Vascos (RIEV)*, 41-1. zenb., 1996. [Liburua: X. Esparza San Juan. *La cueva de Isturitz. Su yacimiento y sus relaciones con la Cornisa Cantábrica*]
- RIAÑO PÉREZ, Eugenio. "Historia de Euskal Herria, Tomo I. Los vascos de ayer". In: *Uztaro*, 20. zenb., 1997 [Liburua: Jose Luis Orella. *Historia de Euskal Herria, Tomo I. Los vascos de ayer*].
- RIAÑO PÉREZ, Eugenio. "Delincuencia y criminalidad en el País Vasco en la transición de la Edad Media a la Moderna". In: *Uztaro*, 16. zenb., 1996 [Liburua: Iñaki Bazan Diaz. *Delincuencia y criminalidad en el País Vasco en la transición de la Edad Media a la Moderna*].
- SALABERRI ZARATIEGI, Patxi. "Jimeno Jurioren "Navarra. Historia del euskera" liburua". In: *Jakin*, 102. zenb., 1997 [Liburua: Jose María Jimeno Jurio. *Navarra. Historia del euskera*].
- SALABERRI MUÑO, Patxi. "Euskal Herria Antzinate Berantiarrean eta Lehen Ertaroan, Materiale eta agiriak". In: *Tantak*, 10. zenb., 1993 abendua [Liburua: Koldo Larrañaga. *Euskal Herria Antzinate Berantiarrean eta Lehen Ertaroan. Materiale eta agiriak*].
- URKIZA, Julen. "Kristautasunaren sarrera Euskal Herrian (A. Azkarate-ren liburua dela-eta)". In: *Karmel*, 1989-1. alea [Liburua: Agustín Azkarate. *Arqueología cristiana de la antigüedad tardía en Alava, Guipuzcoa y Vizcaya*].
- ZALDUA GONZÁLEZ, Iban. "Euskal Herriaren historia", *Uztaro*, 27. zenb., 1998 [Liburua: Antonio Rivera (zuz.) *Euskal Herriaren historia*].
- ZALDUA GONZÁLEZ, Iban. "Historia eta fikzioa: Karlomagno Euskal Herrian VIII-IX. Mendeetan (2001) eta Ikerketa berriak Euskal Herriko historian: metodologia aitzindariak eta berrikuntza historiografikoak (2002)", *Kondaira. com*, 0. zenb., 2003, 1-5. orr. <http://www.kondaira.com/>.